



GIZONA DA ZOROA



Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Nafarroa Beherea). "Odolaren mintzoa" kasetean grabatu zuen (1976).

Bertsoaren berri

"Ene errekontrua" bertso sorta uso ehiztariei jarritakoa da. Bertan Xalbadorrek azaltzen du nola usotan zebilela, eskopeta bizkarrean, ustekabeen tiroak ihes egin eta zango muturrean jo zuen. Bi hatz moztu zizkioten. Hor konturatzen da Xalbador zer egiten dieten ehiztariek usei. Argia da bere mezua: "bizi nahi badugu trankil eta uros / harma xaharra sal ta berririk ez eros".

Gizona da zoroa ta bihotz **gabea**
barnean baldin badu plazerren **gosea**
arimadun batentzat zer **egitatea**
hegaztin inozenter bizia **kentzea**.

